
Arruazuko Garbilekua - Lavadero de Arruazu*


Uharte Arakilgo Iturria - Fuente de Uharte Arakil*


Donejakue bidea Arakil ibaiaren gainetik Irañetan
Camino de Santiago sobre el río Arakil en Irañeta


Egiarretako Garbilekua - Lavadero de Egiarreta*


Plazaolako zubia Irurtzunen
Puente del Plazaola en Irurtzun*


Plazaolako bidezubia Gulinan
Viaducto del Plazaola en Gulina


Oskotzko Garbilekua - Lavadero de Oskotz


Mugiroko Perratokia - Perratoki de Mugiro*


Etxarriko Konjurutokia
Konjurutoki de Etxarri (Larraun)*


Astitzko Garbilekua - Lavadero de Astitz*


Lekunberriko Iturri - Garbilekua
Fuente - Lavadero de Lekunberri


Albiasuko Garbilekua - Lavadero de Albiasu*


Beteluko Garbilekua - Lavadero de Betelu


Arribeko Garbilekua - Lavadero de Arribe

# Ura

*Zonalde honetan ur gehiena ez dago lur gainean agerian, lur azpian baizik, milaka urtetan modelatutako hamaika inbutu-zirrikitutatik (dolinak) sartu, eta lur azpian ezkutatzen da, gure zonaldea kare lur irazkor eta karstikoan kokatzen delako. Gruyère gazta erraldoi batekin konpara daiteke, izan ere, lur azpia barne leize, kobazulo, ur-jauzi eta lakuz josia dago, gehienak, oraindik ere arakatu gabeak, barneko ibaiei (leku ezkutu horien sekretuaren berri duten bakarrak) bidea egiten dietenak.*

*Hemen euria egiten duenean urak banatu egiten dira: batzuk Kantauri itsasora doaz, beste batzuk berriz, Mediterraneo aldera. Uren banalerroak, paisaian dagoen irudizko lerroa alegia, zonaldea zeharkatzen du. Honek naturaren bitxikeria bat sor dezake: batera erortzen diren bi ur tanta arro ezberdinek jasotzea.*

*Ura itsasoetara iritsi baino lehen, zonaldeko herriek aprobetxatzen dute. Zenbaitetan beren iturburuetan jasotzen dute eta beste batzuetan akuifero batetik herri ezberdinei bideratzen da ura, adibidez Iribasko kasuan (Aralarko mendilerroan 68km²ko arro eremukoa). Ura mendian barna ibili ondoren bildu egiten da eta Iribasko bi iturburuetan agertzen da: Aitzarratetan (Ertzilla ibaiaren iturburuan, handik gutxira desagertzen dena) eta Basakaitzen (Larraun ibaia agertzen den lekua).*

*Ur kontsumoa handitu egin da azken urteotan. Izan ere, geroz eta ur gehiago kontsumitzen dugu. Baina ura baliabide mugatua denez dugunarekin bizitzen ikasi behar dugu. Ezin dugu nahi adina erabili, arduratsuak izan behar dugu etorkizunean ezustean harrapatzea nahi ez badugu. Egoera hau aldatzea gure esku dago zenbait ekintza arrunt eginda, hauek erakusten baitute, badakigula, ura errekurtso mugatua dela: hortzak garbitzen ditugunean txorrota itxi, garbigailua eta ontzi garbigailua beteta daudela jarri, bainatu ordez dutxa hartu, ur kontsumo gutxiko lorezaintza egin… Baina elkartasuna agertzen duten ekintza txiki horien gainetik, administrazioak, industriak eta abeltzaintzak… konpromisoa hartu beharko dute guztiontzako eskubidea den ondasun honen kudeatze arduratsuan.*


Albiasuko Iturria - Fuente de Albiasu*


Lezaetako Garbilekua - Lavadero de Lezaeta*

# El agua

El agua en esta zona es poco visible, fluye subterránea, se cuela por las dolinas, embudos que ella misma ha modelado a lo largo del tiempo, porque los valles se asientan en un terreno cárstico, calizo y permeable, una especie de enorme queso gruyère en su mayor parte desconocido, una sucesión de cuevas, simas, galerías, lagos y cascadas que forman variados recorridos para los ríos interiores, los únicos que pueden conocer todo este mundo secreto.

Aquí cuando llueve, hay aguas que van a parar al Cantábrico mientras otras corren hacia el Mediterráneo. La zona es atravesada por la divisoria de aguas, una línea imaginaria en el paisaje, un capricho natural capaz de hacer que dos gotas que caigan juntas sean recogidas por cuencas diferentes.

Antes de llegar a esos mares, el agua es aprovechada por los pueblos, en ocasiones desde sus propios manantiales y en otros casos desde acuíferos que abastecen a varios pueblos como es el caso de Iribas (con una superficie de cuenca de 68 km² en la sierra de Aralar). El agua circula por el interior de la montaña y aparece en los nacederos de Iribas: en Aitzarrateta (donde nace el río Ertzilla, que desaparece en un corto transcurrir) y en Basakaitz (que da lugar al río Larraun).

El consumo de agua se ha multiplicado en los últimos años. Consumimos cada vez más agua cuando evidentemente es un recurso limitado que no puede crecer. Tenemos que aprender a vivir con los recursos que tenemos y realizar un consumo responsable en vez de reclamar tanto como queremos. El futuro es incierto si seguimos en esta progresión, pero está en nuestras manos cambiarlo. Cerrar el grifo cuando nos lavamos los dientes, utilizar la lavadora y el lavavajillas cuando están llenos, ducharnos en lugar de llenar la bañera, practicar una jardinería de bajo consumo de agua…, son acciones sencillas que posibilitan un uso consciente del agua como elemento "limitado", pero por encima de esas pequeñas acciones solidarias, deberán estar las administraciones, industrias, ganaderías… comprometidas en la gestión responsable de un bien que es un derecho para todos.

# Garbilekua

**Garbilekuan**

"Oial-joketan diarduzula
Iturri-lats gardenenan
Zure besoen erraiñua are
Ez aen isil urpean. (…)"

# El lavadero

***En el lavadero***

*"Cuando estás lavando tu colada*
*en el pozo de agua transparente,*
*no se mueve más silenciosa*
*la sombra de tus brazos bajo el agua. (…)"*

**Euskaldunak - Nicolas de Ormaetxea, "ORIXE". 1935.**

*Etxeetan ur korronterik ez zegoenean emakumeek orduak eta orduak ematen zituzten garbilekuan. Elkartzeko, hizketarako, komentatzeko, barre egiteko eta kantarako gune bat zen. Emakume gazteen ahots zorrotzak, amonen ahulagoen gainetik nabarmentzen ziren, harriaren gainean arropa hezea jotzeak ezartzen zuen erritmoarekin eta uraren plisti-plasta eta isurtze etengabearekin batera.*

*Astindu arin, iraunkor eta kementsuekin, arropa heze eta hotza harriaren kontra igurtzen zuten eta hatz-koskorrekin estuten zuten. Noizean behin neguan ur azaleko izotza hautsi beharra zegoen. Ez ziren harritzekoak hotzak eta xaboiak zeukan sodak eragindako ospelak eta arrailak.*

*Historiak, bataila eta gertaera entzutetsuak ekartzen dizkigu gogora, baina ezin dugu ahaztu emakume askok eta askok kanta eta alaitasunaz gain, garbilekuan ahalegina, lana eta zenbaitetan baita osasuna ere eskaini zutela, ia heroismoz.*

Cuando no había agua corriente en las casas, las mujeres pasaban muchas horas en el lavadero. Era un espacio de encuentros, de conversaciones, comentarios, risas y canciones. Las voces agudas de las jóvenes mujeres destacaban sobre las más desgastadas de las abuelas, con el ritmo que marcaba el golpeteo de la ropa húmeda sobre la piedra y el chapoteo y constante fluir del agua.

Con movimientos ágiles, constantes y vigorosos, apretaban con los nudillos y restregaban la ropa mojada y fría sobre la piedra. A veces en invierno había que romper el hielo sobre la superficie del agua. No eran raros sabañones y grietas por el frío y la sosa que contenía el jabón.

La historia nos recuerda las grandes gestas, batallas o acontecimientos, pero no debemos olvidar que además de canciones y alegría, en el lavadero ofrecieron su esfuerzo, su trabajo y a veces su salud, casi "heroicamente", muchas mujeres.

*Iturraskarrik egindako birgaitze-lanak.
*Rehabilitaciones realizadas por Iturraskarri.

# Lixibaldia

# La colada


Lixibaldirako kuela - Kuela para colada

*Gaur "lixiba egitea" bezala ezagutzen duguna, hau da, arropa garbigailuan sartu, xaboia gehitu eta botoia sakatzea besterik ez dena, garai bateko arropa zuritzeko eran dauka jatorria:*

*Lehenbizi arropa xaboiarekin igurtzen zen, harri edo ohol baten kontra jotzen zen zikina beratzeko eta uretan eragiten zen. Arropa zuria txorroan (kukua, kuela) sartzen zen (behean alde batean isurbide txiki bat zeukan harrizko ontzi zilindrikoa). Ondoren, lihozko mihise zuri batekin estaltzen zen eta gainean sukaldeko sutatik ateratako errauts bahetua jartzen zen. Bukatzeko, ur irakina errautsaren gainera isurtzen zen eta iragazi egiten zen. Desegindako errauts horien gatzek lixibarena egiten zuten, zurituz eta desinfektatuz.*

*Lixibatze edo iragazte prozesua behin baino gehiagotan egiten zen, bere horretan uzten zen eta hurrengo egunean uretan eragiten zen.*

*Epe laburrean aldaketa handiak egon dira, eszenatokia, denbora, lanbideak, baina argindarrik ez edukitzeak bakarrik, gure amonentzat oso ohikoak ziren lanei heltzea ekarriko luke berriz.*

Lo que ahora se conoce como "hacer la colada" y que se resume en meter la ropa a la lavadora, echar jabón y apretar el mando, tiene su origen en el proceso de blanqueado que se seguía en otros tiempos:

Primero se restregaba la ropa con jabón, se golpeaba para ablandar las manchas y se aclaraba. La ropa blanca se dejaba en el coladero (kuku, kuela), una pieza cilíndrica de piedra, hueca, con un pequeño desagüe lateral al fondo, se cubría con un lienzo de lino blanco y encima se ponía ceniza tamizada que se reservaba de la cocina. Se hervía el agua, se vertía encima de la ceniza y se iba colando. Las sales de esas cenizas disueltas actuaban como la lejía, blanqueando y desinfectando.

Se iba repitiendo el proceso de colado varias veces, se dejaba reposar y al día siguiente se aclaraba.

En poco tiempo ha habido muchos cambios, de escenario, de tiempo, de ocupaciones pero la simple ausencia de corriente eléctrica nos haría retomar tareas muy cotidianas para nuestras abuelas.

# Iturraskarri

**Bideak eta arraskak berritzeko egitasmo soziala**

**Proyecto social para la recuperación de caminos y lavaderos**




Alli Mugirotik - Alli desde Mugiro


Andia Madotzetik - Andia desde Madoz


Mailoak Albiasutik - Malloas desde Albiasu

**Lekunberriko Turismo Bulegoa**
**Oficina de Turismo de Lekunberri**

**948 50 72 04**

**www.iturraskarri.plazaola.org**

EMPLEO SOCIAL PROTEGIDO
GIZARTE ENPLEGU BABESTUA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Reyno de Navarra
Nafarroako Erresuma

PLAZAOLA

Unión Europea

# Iturraskarri

### *Bideak eta arraskak berritzeko egitasmo soziala*

Iturraskarri izaera sozialeko proiektu bat da. Bere helburua, Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Gizarte Enplegu Babestuko proiektuan parte hartzen dutenei formakuntza izaerako lanak eskeintzea da. Proiektuak gizarte-izaera duen arren, turismoa sustatu eta bertako ondarea, kultura eta natura babestu nahi ditu.

2006. urtean jarri zen martxan eta urte hauetan, garbitokiak, iturriak, askak, konjurutokiak, ferratokiak, korrikalekuak eta berdeguneak berritu ditugu. Horretaz gain, zonaldeko herri guztiak lotzen dituzten bide asko, natur bideak, Donejakue bidea, errege-bideak, errege-abelbideak, mandazainen bideak, suebakiak, gurdibideak eta xendak garbitu, markatu eta bertan mantentze-lanak egin ditugu. Horiek guztiek historia, bitxikeria, edertasun eta ezagutza ugari gordetzen dute bere barnean. Guk horiei buruzko ezagutza bultzatu nahi dugu, merezi duten errespetuaz eta zaintzaz sentsibilizatzeko eta aldi berean baloratu eta gozatzeko.

### Proyecto social para la recuperación de caminos y lavaderos

Iturraskarri es un proyecto de carácter social que pretende proporcionar trabajos con carácter formativo para las personas participantes del proyecto de Empleo Social Protegido de Base de la zona de Irurtzun. Conjuga un carácter social con un objetivo turístico y de conservación del patrimonio, la cultura y la naturaleza.

Este proyecto se puso en marcha en 2006 y desde entonces se han rehabilitado lavaderos, fuentes, abrevaderos, konjurutokis, potros de herrar, puentes, korrikalekus y zonas verdes. También se han limpiado, marcado y mantenido caminos que unen todos los pueblos de la zona. Algunos tramos son vías verdes, camino de Santiago, caminos reales, cañadas reales, caminos de arrieros, cortafuegos, caminos carreteros y sendas. Todos ellos encierran mucha historia, curiosidades, belleza y conocimientos que deseamos se conozcan para que se respeten, se valoren, se cuiden y se disfruten.



Iturraskarri. Garbilekuetan erabiltzeko egurren berreskuratze lanak
Trabajos de recuperación de madera para lavaderos*

### *Iturraskarriko Bideak*

Gure ibarretan, betidanik jendeak erabili izan ohi dituen mendi bideak erabiltzeko moduan jartzen saiatzen ari gara, horiexek izan baitziren eta izan dira orain dela gutxi arte azienda salerosketetarako, senideei bisitak egiteko, herrietako festetara joateko... erabilitako gure ohiko bideak.

Zoritxarrez, utzikeriaren ondorioz, edo agian okerragoa dena, ahaztuak izan direlako, zenbait zati, partikularrek, errepideek, lur biltzek, sasiek... hartuak dituzte. Hori dela eta, bide hauek berriz ere merezi duten estima geure egitea nahi genuke, bide hauen ondare-balioa, balio historikoa, oroitarazlea eta funtzionala handia izan baita.

Horretarako, zonaldeko herriak lotzen dituen oinarrizko bide-sarea ireki dugu. Zenbait zatitan, bide zaharrak eta errepideak bat egiten dute; beste batzuetan, hartuta daudelako, itzulinguru txiki bat egin beharko da. Baina zati gehienetan bide-sare honek bide zaharrak jarraituko ditu eta zenbaitetan laborantza-bideak eta gurdibideak.

### Caminos de Iturraskarri

Intentamos recuperar para el tránsito público esos caminos que se han utilizado tradicionalmente en nuestros valles para tratos ganaderos, visitas familiares, ir a fiestas de los pueblos...

Por desgracia el abandono ha provocado que algunos tramos hayan sido ocupados por particulares, carreteras, concentraciones parcelarias, maleza… y lo que quizás sea peor, por el olvido. Por eso nos gustaría recobrar el aprecio por los caminos, su valor patrimonial, histórico, evocador y funcional.

Para ello se ha abierto una red básica que comunica los pueblos de la zona. En algunos tramos el asfalto coincide con el camino viejo y en otros, por ocupación, habrá que dar un pequeño rodeo. Pero en la mayor parte siguen los caminos viejos, con trechos de caminos de carro (gurdibides) y pistas agrarias.



Goldaratzera joateko bidea Latasatik
Camino a Goldaratz desde Latasa*



Plazaolako tunela Urritza eta Latasaren artean
Tunel del Plazaola entre Urritza y Latasa

